

ARRANO ARRANTZALEEN BILA AFRIKAN

Gidoia : TXEPE

Marrazkiak : ANGEL



Ikerrek bi urte daramatza Urdaibaiko arrano arrantzaleak behatzen eta aztertzen. Denbora horretan arrano arrantzaleekin hartueman berezia izatea lortu du eta Afrikarantzko bidaiak nola eta nora egiten duen jakin nahi du. Ikerren interes handiagatik bere amonak Gambiara bidaiak oparitu dio.

Begira Iker zutoin horietan 3 arrano arrantzale daude. Jaten daude ez?

Batek atzaparretan arrain bat dauka eta burua jaten ari da. mugitzen ari da. Erantzuna irakurtzea lortu dut eta N3 da!

Uau! Orain dela 4 urte askatutakoa da. Urdaibaira bueltatzen den bigarren urtea da.

Begira Iker bere alboan erantzuna daraman beste bat dago! Irakurri al dezakezu?

N4 da!
N4 da amona. Bueltatzea lortu du baita.

Ez egin zaratarik Iker. izutuko dira eta.

Barkatu amona baina N3 eta N4 Eskoziatik ekarri zituztenean ikusi nituen eta liluraturik nago.

Kaixo Itxaso. Badirudi albiste onak ditugula ezta?

Bai horixe. 2013 eta 2015 artean askatutako arranoetatik 7 bueltatu dira gutxienez.

Pena bat da lehen urtean hainbat eta hainbat hiltzea.

Horrelakoa da bizitza. Horregatik bikote gutxi daude kumatzen Europan.

Itxaso: N3 eta N4 Urdaibain kumatzen geratuko al dira?


Oraindik goiz da jakiteko. N3 habian jarraitzen du eta N4 bidaiariagoa da. Frantzian behatu dute habi bat edo beste txukuntzen.

Uau! Albiste ona da oso.

Bai. hori da Iker. bikote zain daude.

N3k eta N4k emeren bat gorteatu dute baina ez dute lortu bikotea sortzea. Uda bukatu ostean, irailean, Afrika subsahariarrera joan ziren beste 12 arrano arrantzalekin batera. Horieta bat "Cousteau" izendunak GPS aparailua daramana bere kokapena zein den jakiteko.





Bueno lagunok. ibaiaren beste toki batean gure lagun gehiago dauden ikustera noa.

Ondo da Aitor, Urdaibain elkar ikusiko gara.

Espero dugu aurton zorte ona izatea eta Urdaibain kumatzea. bide batez guk "Cousteau" zainduko dugu

Bye bye Aitor

Kostalderantz doaz hondartzetatik gertu arrantza egitera

Joan al gaitzke nola arrantzatzen duten ikustera?

Noski Iker, erakustaldi galanta ikusiko duzu

Begira Iker, hemen ez zaie janaririk falta. Mirestekoa da inork ezer erakutsi gabe nola diren gai arrantzan egiteko. Gainera, asko jan beharra daukate Europara bueltako bidaia egin al izateko

Noiz bueltatzen dira Europara?

Orain da momentua, martxoko bigarren astetik aurrera

Amona, begira zenbat jende dagoen sareekin arrantzan

Bai Iker, hemen kostaldetik gertu egiten da arrantzan, hori dela eta arranoak egunero ikusten ditugu

Noski, helduak iparraldera kumatzea doazen bitartean gaztetxoak hemen gelditzen dira
Zer nolako zortea !! urte guztian zehar ikusteko aukera izatea

Iker, Tanji Lower Basic eskolako ikasle batzuk aurkeztu nahi dizkizut

Zein ondo!

Ikasle oso onak dira eta gainera zuek Urdaibain dakizuen bezala, adituak arrano arrantzaleetan

Kontatu didate jada eskolako nire lagunek

Hau da gure futbol taldeko pankarta eta gure leloa da: "Arrano arrantzaleei tirorik ez egin!"

Zein ideia ona, jolastu eta hezialdi berean Gutxienez ume horiek helduak hezten jakingo dute

